

**2023KO IRAILAREN 26AN EGINDAKO
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Gorka Murua Macuso

Zinegotziak

Olaia Nieto Legarra
Mikel Iturbe Saizar
Noelia Lataburu Ortiz
Idoia Garayalde Goicoechea
Ioritz Lazcano Aranalde
Gorka Sagarna Larrañaga
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga
Begoña Tolosa Mendia

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2023ko irailaren 26an arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari irekia izango da, eta edozein herritarrek bere eskura izango ditu bileraren akta eta audio grabazio argitaratu ondoren eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

1.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2023KO UZTAILAREN 21ETIK 2023KO IRAILAREN 20RA (2023/214 - 2023/257).

Alkatetzak 2023ko uztailaren 21etik 2023ko irailaren 20ra bitartean (2023/214 - 2023/257) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

2.- TOLOSALDEKO 24 UDALEN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, ANDRAGORA, TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA KUDEATZEKO, FINANTZATZEKO, JARRAIPENA EGITEKO ETA KONTROLATZEKO HITZARMENA SINATZEKO ALKATE DEKRETUA BERRESTEA.

Alkateak aurrekariak azaldu ditu eta hitzarmenaren xehetasuna azaldu ditu, gainera Tolosalde Garatzenen bidez eramango den prozedura izango dela esan du, eta Alkate Dekretuz onartzea egoki ikusi zen, orain erabakia berrestea geratuko litzateke.

Esp.zk.:2023IDAZ0060

ALKATE DEKRETUA

GORKA MURUA MACUSO jaunak, Irurako Udaleko alkateak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1. atalean xedatutakoaren arabera, honako hau:

IKUSIRIK

TOLOSALDEKO 24 UDALEN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, ANDRAGORA, TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA KUDEATZEKO, FINANTZATZEKO, JARRAIPENA EGITEKO ETA KONTROLATZEKO hitzarmena sinatzeko beharra.

Aurrekariak.-2021eko martxoan abian jarri zela Tolosaldeako udalen arteko Emakumeen Etxeko II. Prozesu parte-hartzailea, 2018 eta 2019 urteen artean gauzatutako lehen prozesuari jarraipena emateko. 2022ko apirilean amaitu zela, eta parte hartzeko prozesuaren bigarren fase horrek hamahiru hilabeteko iraupena izan zuela.

Guztira 76 emakumek hartu dutela parte eta Tolosaldeko 28 udaletatik 24k bat egin dutela proiektuarekin (Hernialde, Abaltzisketa, Belauntza eta Albiztur kanpo geratu ziren). Etxearen izena ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxea izango dela, Tolosako Inpernu kaleko 5 eta 7ko lokaletan eta Emakumeon plazako 1.eko lokalean jarriko dela.

Horren aurrean eta Alkatetza honi, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaz onartutako Entitate Lokaletako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Arautegiko 41 art.-ko lerroakadak adierazten dizkion eskuduntzen arabera,

ERABAKI DUT

LEHENENGOA.- ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxea, 24 udalen arteko lankidetzahitzarmena sinatzea.

Testuak honela dio:

“TOLOSALDEKO 24 UDALEN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, ANDRAGORA, TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA KUDEATZEKO, FINANTZATZEKO, JARRAIPENA EGITEKO ETA KONTROLATZEKO Tolosan, 2023ko...

BILDU DIRA

CRISTINA RODRIGUEZ MENDICUTE anderea, ADUNAko Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN 72.439.784L, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz

REGINA SORARRAIN LASA anderea, ALEGIako Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN 72437219F, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.

IÑAKI XABIER IRAZABALBEITIA FERNANDEZ jauna, ALKIZAKo Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN 15922304W, **2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.**

XABIER OLANO JAUREGI jauna, ALTZOKo Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN 15942140N, **2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.**

BEATRIZ UNZUE ESNAOLA anderea, AMASA-VILLABONAKo Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN 35774909L, **2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.**

MIKEL ARTEAGA ZABALA jauna, AMEZKETAKo Udalaren izenean eta ordezkartzan NAN, 72512949K, **2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.**

EGOITZ LUISA URKOLA jauna, ANOETAKo Udalaren izenean eta ordezkartzan, **NAN, 72481667L, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.**

MARIA PILAR LEGARRA CORTAJARENA anderea, ASTEASUKo Udalaren izenean eta ordezkartzan, **NAN 72430869 M, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.**

UGAITZ GARMENDIA AURKIA jauna, BALIARRAINGo Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN, 73035287Y, **2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.**

ANDONI ZURIARRAIN ITURBE jauna, BERAŠTEGIko Udalaren izenean eta ordezkartzan, **NAN 72453803P, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.**

AITZOL IZQUIERDO DIAZ DE GUEREÑU jauna, BERROBIko Udalaren izenean eta ordezkartzan, NAN 72498790F, **2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.**

MIREN AGURTZANE CELAYA ARANDIA anderea, BIDEGOIANGo Udalaren izenean eta ordezkartzan, **NAN 72444526T, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.**

OIHANA AMUNDARAIN ZUBILLAGA anderea, ELDUAINGo Udalaren izenean eta ordezkartzan, **NAN 72481789A, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.**

IGOR ZAPIRAIN LIZARRIBAR jauna, IBARRAKo Udalaren izenean eta ordezkartzan, **NAN 35776801W, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.**

ALBA GARMENDIA CASTAÑOS anderea, IKAZTEGIETAKo Udalaren izenean eta ordezkartzan, **NAN 72525097W, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.**

GORKA MURUA MACUSO jauna, IRURAKo Udalaren izenean eta ordezkartzan, **NAN 44142319Y, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz, Irurako 2023ko uztailaren XXXko XXX Alkate dekretua egikaritzuz.**

MARIA TERESA ARANA PEREZ anderea, LARRAULGo Udalaren izenean eta ordezkartzan, **NAN 20169.571C, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.**

JOSE RAMON EIZAGIRRE SORONDO jauna, LEABURU-TXARANAKo Udalaren izenean eta ordezkartzan, **NAN 15983045T, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.**

IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN jauna, LIZARTZAKo Udalaren izenean eta ordezkartzan , **NAN 72445561T, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.**

MIGUEL ANGEL ARSUAGA AZURMENDI jauna, ORENDAINGo Udalaren izenean eta ordezkartzan, **NAN 15980724W, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.**

GURUTZE ETXEZABAL ITURRIOZ anderea, OREXAKo Udalaren izenean eta ordezkartzan, **NAN 72548256T, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.**

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI jauna, TOLOSAKo Udalaren izenean eta ordezkartzan, **NAN 72438134W, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.**

MAITE AMENABAR ALKORTA anderea, ZIZURKILGo Udalaren izenean eta ordezkartzan, **NAN 72482208P, 2023ko ekainaren 17an eskuratutako ahalordeei jarraikiz.**

Alderdiek hitzarmen hau sinatzeko behar den gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri, eta horren arabera

AURREKARIAK

I. PROIEKTUA

Tolosaldeko emakumeen etxe bat izateko proiektua aldarrikatu zen Tolosako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren ebaluazioan (2009-2011), eta 2012an Tolosako emakumeek haien espazio propioa izatea eskatu zuten.

.....

Jabetze Eskola indartzeko, eta emakume-taldeek beraiek eskatuta, guztientzat foro komun bat antolatze beharra ikusi zen, esperientziak partekatzeko eta jarduerak elkarrekin eta koordinatuta antolatze. Era berean, Tolosarako Emakumeen Etxea sortzea eskatu zuten, udalerriko emakumeak ahalduzko jarduera guztiak garatzeko gune propioa izateko.

Ildo horri jarraituz, 2015ean, Tolosako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planean (2015-2020), berri ere jaso zen eskualdean emakumeentzako espazio fisiko bat sortzeko beharra, hain zuzen, 2. ardatzeko (Jabetza eta Partaidetza), 2.1.1.4. eta 2.1.1.5. neurri espezifikoen artean:

«2.1.1.4. Emakumeentzako espazio fisiko bat sortzea, Tolosan kokatua eta eskualdeari lotutako zein lotu gabeko emakumeei irekia.

2.1.1.5. Emakumeen geroko espazioa kudeatzeko eredu bat definitzea, partaidetzazko prozesu baten bidez, espazio horretako partaide izango diren kolektiboen eta banakako emakumeen inplikazio-maila ahalik eta handiena lortzeko».

2016. urtean landutako Tolosatzen delakoan prestatutako Tolosako Plangintza Partekatuan (2017-2027) ere, egitasmoari erreferentzia egin zitzaion; hain zuzen, «Tolosa, pertsona ardatz duen herria» izeneko lehendabiziko ildo estrategikoan. Zehazki:

1.3.3.- Partaidetza-prozesuak erraztea eta estrukturak eta mekanismoak sortzea, Tolosan emakumeentzako etxe/gune bat antolatzearen egokitasuna eztabaidatzeko eta gogoeta egiteko.

Hala, 2016an, ordezkari politikoak eta emakumeen taldeko ordezkariak Basauriko eta Donostiako etxetara joan ziren, gune horietan izandako esperientziak aztertze eta proiektu honen abiapuntu izateko.

Urte horretan bertan, era berean, Emakumeen Etxearen lantalde politiko-teknikoa sortu zen. Talde horretan bildu ziren Tolosako Udalean ordezkariak duten alderdi politikoetako ordezkariak eta emakumeen taldeetako ordezkariak. 2018an, Berastegiko eta Asteasuko alkateak talde honetan integratzen dira. Zazpi bilera egin ziren. Talde honen helburua zen, besteak beste, emakumeekin elkarlanean proiektuaren inguruko zehaztapenak adostea. Horren haritik, hainbat gai tratatu ziren: etxea sortzeko arrazoiak, definizioa, lan-ildoak, eskaini beharreko zerbitzuak, antolamendua, kudeaketa eta abar.

2017ko udaberrian, zenbait feminista eta emakume-talde elkartu eta Tolosaldeko Emakumeen Etxearen eskaerari indarra eta forma ematea erabaki zuten. Horren inguruan hitz egiteko bilera ireki bat antolatu zen eta izugarritzko arrakasta izan zuen. Eskualde osorako izango zen Emakumeen Etxe bat behar zela ondorioztatu zen, Tolosan kokatua, eta parte-hartzeko prozesu bat beharrezkoa zela emakumeek nolako etxea nahi zuten erabakitze. Eskaera horrekin 300 sinadura inguru bildu ziren.

Gainera, 2017ko martxoaren 8ko greba feministaren testuinguruan, Tolosaldeko Asanblada Feminista sortu zen. Bere erronka nagusia Emakumeen Etxea sortzea da, eta, horri begira, eskualdeko emakumeen eta eragileen arteko sareak eraikitzea.

Halaber, Tolosako Udaleko Berdintasun Sailaren 2018ko aurrekontuan, 20.500 €-ko diru kopurua aurreikusi zen enpresa bat kontratatze, proiektu honen inguruan, prozesu parte-hartzaile baten bidez, hausnarketa bat egin zedin herritarrekin, bereziki emakume-taldeen, eta horren inguruan zenbait jarduera aurrera eraman zitezten.

Ildo horri jarraituz, 2019-2023 Legealdirako Kudeaketa Planean, 4.1 kapituluan (Tolosako Emakumeen ahalduzko espazioa), honako hau dago jasota:

Azken urteotan parekidetasun eta berdintasunaren alde emandako pausuei jarraikiz Tolosaldeko Emakumeen Etxea eraikiko da, tokiko zein eskualdeko emakumeen ahalduzko espazioa.

Espazio berria erreferentziazko gunea izango da emakume guztientzat: elkar- ezagutzeko, elkarlanean ekimen berriak garatzeko eta antolatzeko, emakumeen topaketarako eta eztabaida eta hausnarketarako gunea izango da.

Beraz, 2018ko maiatzean, hasiera eman zitzaion parte-hartze prozesuari eta bi lan-talde gehiago sortu ziren: Talde Eragilea (Tolosaldeko Asanblada Feministako ordezkariak, emakumeen taldekoak, emakume norbanakoak eta Tolosako Berdintasun teknikariak osatutakoa) eta Emakumeen Gune Zabala (interesa duten eskualdeko emakume guztiak).

Lehen partaidetza-prozesu hori bi fasetan garatu zen: lehen fasean, 2018ko maiatzean eta ekainean, etxearen printzipioak, xedea, kalitatea, erabilera eta jarduerak definitu ziren. Eta, irailetik abendura bitarteko bigarren fasean, etxearen kudeaketa, antolaketa, baliabide eta abarren eredia definitu zen. Prozesuan, eskualdeko 104 emakumek parte hartu zuten, adin, herri eta talde desberdinetakoak: Tolosaldeko Asanblada Feminista, Ana Yurd, Bilgune Feminista, Kokuyó, Batukada (Batumore), Zutani eta sindikatuak (ELA eta LAB).

Tolosaldeko Emakumeen Etxearen egitasmoa definitzeko prozesuan hainbat alderdi landu eta zehaztu dira: Etxeak zer beharrei erantzun beharko dien; Etxearen erabiltzaileak nortzuk izango diren; zer ezaugarri eta printzipio gidari izango dituen; Etxearen funtzionamendu eta kudeaketa eredia; zer nolako jarduerak garatuko dituen; zer nolako zerbitzuak emango dituen eta abar.

Halaber, prozesu horretan, eztabaida askoren ondoren, Etxearen kokapena erabaki zen eta haren aurreproiektua ere aurkeztu zen.

Tolosaldeko Emakumeen Etxearen helburu orokorra hau izango da: Emakumeen topaketa, eztabaida, ikaskuntza eta ahalduzko gune seguru eta kolektibo bat izatea, agenda feminista politikaren erdiko ardatzean kokatu ahal izateko, feminismoaren helburu politikoak txertatuta, desberdintasunak eta izan litezkeen intersekzio kontuan harturik, oraingo agenda inplikaturako eragileekin zabaldurik, eta beharrezko tresnak eta metodologiak berriturik.

Beste helburu bat prozesu estrategiko eta eraldatzaileagoak lortzeko bidean laguntzea eta aurrera egitea da, Tolosaldeko bizitzako esparru guztietan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzeko.

Talde Eragileak egindako proposamena Tolosaldeko udaletako ordezkariari aurkeztu zitzaion 2019ko otsailaren 18an egindako bileran. Bertan erabaki zen udalerri bakoitzak moztio bat aurkeztu behar zuela osoko bilkurarako, eta adierazi zen Etxearen proiektua udalerri bakoitzean babestu, gizarteratu eta ikusgai egongo zela, eta, gainera, udalerri horietako bakoitzak aurrekontu-partida bat jarriko zuela Etxeko jarduerak eta zerbitzuak gauzatzera bideratutako giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak emateko.

Gainera, ordezkari politikoekin egindako bilera horretara, Emakumeen Etxea modu partekatuan finantzatzeko proposamen bat helarazi zuten mozioa babesten zuten Tolosaldeko udalak.

Jarraian, Lantalde politiko-teknikoak proposamen hura eta haren bideragarritasuna eta martxan jartzeko aukerak aztertzen zituen; besteak beste, kudeaketa, funtzionamendua, emakumeek adostutakoa, eta Tolosaldeko udalak jarriko zituzten edo jar zitzaketan baliabideak; eta, azkenean, proposamen berri bat landu zuten.

2019ko urritik aurrera, lehenengo lan gisa, Lantalde politiko-teknikoan aurkeztu eta kontrastatu zituzten egindako proposamenak, eta parte-hartze prozesuan parte hartuko zuten emakumeekin ere kontrastatu ziren, denen artean adostasuna lortzeko saiakera egiteko.

Horrela, 2021eko martxoan abian jarri zen II. Prozesu parte-hartzailea, 2018 eta 2019 urteen artean gauzaturako lehen prozesuari jarraipena emateko. 2022ko apirilean amaitu zen, eta parte hartzeko prozesuaren bigarren fase horrek hamahiru hilabeteko iraupena izan zuen. Guztira 76 emakumek hartu dute parte eta Tolosaldeko 28 udaletatik 24k egin dute proiektuarekin (Hernialde, Abaltzisketa, Belauntza eta Albiztur kanpo geratu ziren). Etxearen izena ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxea izango da, Tolosako Inpernu kaleko 5 eta 7ko lokaletan eta Emakumeon plazako 1.eko lokalean jarriko da. Tolosako Udala da horien titularrak.

Bigarren partaidetza-prozesuan, besteak beste, honako hauek landu eta zehaztu dira:

Araudi bat, non Etxearen erabiltzaileak definitu, eta horien eskubideak eta betebeharrak zehazten baitira; kudeaketa eta funtzionamendu eredu bat; 24 udalen artean finantzaketa partekatua izateko proposamena; Etxean eskainiko diren

jarduerak eta zerbitzuak; 24 udalen eta Etxearen erabiltzaile diren emakumeen arteko elkarriketarako Emakumeen Elkartea sortzea; eta, azkenik, bozketa baten bidez, ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxea izena adostu da.

ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen proiektua definitzeko parte-hartze prozesuetatik eratorritako gastuak:

2018an lehen parte-hartze prozesua: 18.089,49 €

2019an komunikazio-jarduerak: 2.796,59 €

2019an errefortzu teknikoa: 4.737,33 €

2020an 1.949,41 €

2021ean bigarren parte-hartze prozesua: 11.707,20 €

Guztira, 39.280,02 €

II.- INPERNU KALEKO 5 ETA 7AN, ETA EMAKUMEON PLAZA JEAN DAUDEN LOKALAK EGOKITZEA

Planteamenduaren bilakaera eta obren amaiera

2019an, Tolosako Udalak aurreproiektu bat idazteko agindu zuen, aztertzeko zer aukera zeuden Udalak Inpernu kaleko 5. eta 7. zenbakietan jabetzan duen lokalean Tolosaldeko Emakumeen Etxea jartzeko.

Lokal horren azalera, guztira, 359,26 m² erabilgarrikoa da, bi solairutan banatuta: 288,36 m² beheko solairuan, eta 70,90 m² lehenengo solairuan.

Abiapuntu gisa, erreferentziazko programa bat zegoen, Tolosako Udaleko Berdintasun Sailak aurreikusitako espazio eta erabileren beharrezanekin osatua.

Hasiera-hasieratik egiaztatu da programa hori ezin dela osorik garatu erabilgarri dagoen lokalean, eta ez lokalaren metro karratu kopuruagatik bakarrik, baizik eta lokalaren konfigurazioagatik beragatik, hormigoizko zutabe eta pantaila ugari baititu, eta hormarteen arteko gehieneko distantzia, norabide batean eta bestean, 6,50 m eta 5,50 m-koa da.

Aldaketa txikiak eginez eta piezak ere batera edo bestera antolatuz, egiaztatu da ezinezkoa dela Berdintasun Sailak idatzitako programa betetzera hurbiltzea.

Gainera, Tolosaldeko Emakumeen Etxeen Talde Eragilearekin izandako bilera batean, hasierako programa zabaltzea proposatu da –azaldutakoaz gain sukalde txiki bat ere jarrita–, biltegiaren eta instalazioen eremua pixka bat murriztea, aurreikusitako beste areto baten azalera handitzea, eta atzeko lokaleko aretoek aretoaren barrualdetik sarbidea izatea, atzeko korridorea luzatuz.

Horregatik, bigarren aukera bat aztertu zen: Emakumeon plazako 10. zenbakian dagoen lokala okupatzea. Azken horrek 262.13m²-ko azalera du. Horrela, bi lokal horiek kontuan hartuta, azalera erabilgarria 621,39m²-koa da guztira.

Aldaketa horiek kontutan hartuz, obra gauzatu zen, 597.709,22 eurotan.

Obra horien deskribapena, ondorengo da:

1.- Lokal nagusia (Emakumeon Plaza)

Lokal nagusiak lehenengo Andre Mariaren Bihotzaren plaza delakoan du sarbidea, orain Emakumeon Plaza izena duen horretan. Plaza gune garrantzitsua da, hirigune historikoan baitago eta tren-geltokitik hurbil. Beraz, Emakumeen Etxerako sarbideak lotura zuzena ezartzen du eraikinararen barnealdearen eta kanpoaldearen artean, eta, horrela, plazaren eta Etxearen arteko lotura indartzen da. Horrela, plazatik barruan dagoena suma daiteke eta plazaren bizitzan barrutik ere parte har daiteke.

1.2.- Emakumeen topaleku-gela

Liburutegi-egongela Emakumeen Etxearen topalekua eta zentro neuralgikoa da. Areto hau egunero egongo da zabalik, Tolosaldeko emakumeek erabil dezaten: egunkaria irakurri, bilerak egin, hitzaldi informaletara joan, ordenagailuak erabili eta abarrerako. Eta jarduera horrek hiriko bizitzan presentzia izango du, plazara ematen duten leihateen bidez.

Emakume-elkarteek eskatuta, eta eraikinaren barruan dauden emakumeen identitatea babesteko, leihoetako kristalak argia pasatzen uzten du, baina espazioaren barrukoaldea ikus ez dadin, leihoetan eta etxeko ate nagusian biniloak jarri dira.

Halaber, banaketa bisual bat ezarri da, sarrera nagusiko harrera-mahaiaren eta aretoaren artean pribatutasunari eusteko.

Sarrerako ateak ate bikoitz lerragarri automatiko eta irisgarria du.

Altzariak neurriari egin dira, altzari modularrekin, espazioa modu batean baino gehiagotan konfiguratu ahal izateko, gunearen beharren arabera: bakarkako irakurketa, bilera informalak, eztabaidak, hitzaldi txikiak eta abar. Uneren batean, behar izanez gero, pilatu egin daitezke, lekua libre uzteko. Altzari horiek egur eta kotoiarekin egin dira.

*Halaber, apalategi zabalagoak daude alboko goiko leihoen azpian, **liburutegi** gisa erabiltzeko.*

Gainera, kafe makina bat jarri da, Berdintasun Departamentuak proposatutako office-tik aparte erabiltzeko.

Lokal nagusiko gainerako espazioak honela banatuko dira: ekitaldi-aretoa (balio anitzeko aretoa), komunak eta alboko lokaletarako lotura-korridorea.

1.3.- Harrera

Harrera-mahaia sarreraren ezkerrean dago, Berdintasun Sailarekin konektatuta. Modu horretan, agerikoagoa eta irisgarriagoa da; izan ere, kanpoko sarbidetik zuzeneko konexio bisuala du, eta harekiko lerro zuzenean kokatzen da, eta norabide horretan hurbiltzen da bertara. Jendeari arreta emateko harrera-mahaia irisgarria da gurpil-aulkian ibiltzen diren erabiltzaileentzat.

Harrera-mahai horretan, etxeko dinamizatzaileak arreta eskainiko die lokal horretara joaten diren emakumei, berehalako arretarako gunea batetik, eta iraupen luzeagokoa bestetik, esertzeko lekua emanez eta erabiltzailearen konfidentziasuna bermatuz.

1.4.- Tolosako Udaleko Berdintasun Saila

Hasiera batean, Berdintasun Saila lokal nagusian jarri da, ANDRAGORAREN dinamika bere erritmoa hartu eta zerbitzua finkatu arte. Hori lortzen denean, Berdintasun Saila atzeko lokalean dagoen lehenengo solairura lekualdatuko da (Inpernu kalea 5 eta 7).

1.5.- Zerbitzu gela I

Berdintasun Sailaren ondoan dago. Emakumeak berehala eta pribatutasunez jaso ahal izateko bulegoa; horregatik jarri da harrera-mahaiaren ondoan.

1.6.- Areto Nagusia

Areto balioaniztun moduan planteatzen da areto nagusia. Altzari pilagarriekin, hainbat konfigurazio egokitu ahal izateko. Gutxi gorabehera, 60 emakumerentzako lekua kalkulatzen da, gurpildun aulkientzako 2 espazio barne.

1.7.- Bilera gela

Bilera gela bat dago, hozkailua eta kafe-makina jartzeko espazioa izango duena.

1.8.- Atzealdeko sarrera

Beste sarbide bat ere badago, atzeko lokalekin lotura zuzenagoa izateko. Sarbide horrek bi fatxadetan arteko desnibela orekatu behar du. Beraz, eskailera eta plataforma jasotzaile bat prestatu dira bertara iristeko.

2.- ATZEKO LOKALAK (Inpernu 5. eta 7.)

Atzeko lokalek 4 sarbide dituzte guztira, sarbide nagusia, lehen solairuko bulegoetarako sarbidea eta 1. eta 2. geletarako zuzeneko sarbideak, alegia.

Hala ere, sarbide nagusiari lehenetsia ematen zaio. 1. gelarako sarbidea larrialdi-irteera bihurtzen da.

2.1.- Gelak

Tamaina eta ezaugarri desberdineko 5 gela daude, ANDRAGORAn egingo diren jarduerak garatzeko.

1. eta 2. gelek zuzeneko sarbideak dituzte kaletik; beraz, gainerako espaziotik aparte kudeatu eta erabili daitezke.

2. gelan sukalde txiki bat dago. Ikuspuntu funtzionaletik, ezinbesteko elementutzat jotzen da, sukaldaritza, gozogintza eta abarretako tailerrak egin ahal izateko; baita elkarten barne-erabilerarako ere.

2.2.- Bulegoa eta bilera gela

Atzeko lokalaren goiko solairuan bulego eta bilera gela bat *daude*, eta han jarriko da Berdintasun Saila.

3.- HURBILEKO ESPAZIO PUBLIKOA ETA SARRERA NAGUSIA HOBETU DA

Emakumeen Etxetik gertu dagoen espazio publikoa eta sarrera nagusia hobetu dira, fatxadetan esku hartu da eta sarreran eta leihoetan ahokadura gisa duten zurezko taulekin estalki bat egin da eta taula horietan lokalaren izena, **TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA** grabatu da.

Azal bikoitz horren diseinuak, gainera, egun dauden zorrotzenak ezkutatzeko, fatxadetan itxura garbiagoa utziz.

Eraikuntza HPL zurezko panelen bidez egin da, ahal den neurrian, jatorri autoktonoak eta fabrikaziokoak, kanpoan jartzeko beharrezko tratamenduarekin. Euskadi batez ere baso-herrialdea da, eta material hori erabiltzeak indartu egiten du haren izaera azpimarratzen duen ideia.

Fatxadaren ondoan, bankuak eta loreontziak jarri dira, Emakumeen Etxeak bere ingurune hurbilenarekin duen lotura indartzeko.

Atzeko lokalei dagokienez, ezarpena arinagoa izan da, baina sarbide horiek multzo beraren zati gisa identifikatzeko aukera ematen dutela.

2020ko irailean, proiektuaren idazketa eta obra-zuzendaritza esleitu ziren, **33.540,00 euroko guztizko gastuarekin**.

2021ko ekainean, eraberritzeko oinarritzko proiektua eta exekuzioa aurkeztu ziren.

2022ko irailean, proiektuaren idazketa eta obra-zuzendaritza aurkeztu ziren, guztira **597.709,22 euroko gastuarekin**.

2022ko abenduan, Altzariak hornitzea eta instalatzea: **93.775,00 euroko gastuarekin**

III.- AZTERKETA EKONOMIKOA

ANDRAGORAREN 2023-2025 aldirako gastuen benetako kostua kalkulatzeko, ondorengo kontzeptuak kontutan izan dira:

- Lokalaren kontserbazio eta mantentze gastuak: hornidurak, erabilerak sortzen dituen mantenu-eta birjarpeneko gastu txikiak.

- *Jarduerak eta programak: ludikoak, kulturalak, kirolekoak, ekintza zuzenak, ekimen solidarioak, topaketak, batzarrak, jardunaldiak, tailerrak, mahai-inguruak eta abar.*
- *Zerbitzuak: aholkularitza psikologikoa (bakarka eta taldean) eta aholkularitza juridikoa.*

Era berean, partaidetza-prozesuetan, hitzarmen hau sinatzen duten 24 udaletako bakoitzak finantzatu beharko lituzkeen gastuen benetako kostua kalkulatzeko irizpideak ezarri ziren. 2023ko gastua gauzatzeko aurreikuspena lau hilabetekoa da (iraila-abendua), eta 2024koa eta 2025ekoa, berri, urtekoa.

Hitzarmen honi erantsitako I.eranskinen 1. taulan kontuan hartzen dira, alde batetik, mantentze-lanen gastuak eta bestetik, Etxean eskainiko diren aholkularitza psikologiko eta juridikoko zerbitzuen ondorioz sortutako kostu guztiak.

Eranskinen 2. taulan dinamizazio zerbitzuaren esleipenetik eratorritako gastuen benetako kostua kalkulatu da. Kostu hau Tolosako Udalak izan ezik, gainerako 23 udalek finantziatuko dute.

Azkenik, eranskinen 3. taulan jaso da udal bakoitzari finantzatzea dagokion kostu efektibo osoa. Udal bakoitzaren 2022 urteko aurrekontuetako diru-sarrera arruntak hartu dira kontuan bakoitzari ordaintzea dagokion kopurua kalkulatu ahal izateko.

I.eranskinen jasotako kostuak aurreikuspenak dira eta aldaketak egon daitezke bertan jasotako kopuruaren eta urteroko likidazioaren artean (benetan izandako kostua txikiagoa edo handiagoa izan daiteke). Urteroko likidazioa egiterakoan izandako kostuen kitapena egingo da, hau da, izandako gastua aurreikusitakoa baina handiagoa bada, udal bakoitzak dagokion zenbatekoa ordainduko du; gastua, aldiz, aurreikusitakoa baina txikiagoa izan bada, udal bakoitzak Tolosaldea Garatzeni diferentzia itzultzeko eskatuko dio.

Beraz, ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen proiektua definitzeko eta adosteko aurrekariak eta parte-hartze prozesuak kontuan hartuta:

ADIERAZTEN DUTE:

Hitzarmen hau sinatzea beharrezkoa eta egokia dela, interes orokorreko helburu komun bat lortzeko alderdien arteko akordio gisa, ANDRAGORA, Tolosaldea Emakumeen Etxearen baterako kudeaketan, garapenean, finantzaketan eta jarraipenean gauzatzen dena.

Horrenbestez, aurretik azaldutakoarekin bat etorritik, 24 udalek lankidetzaren hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetzeko, baliabide eta zerbitzu publikoak batera erabiltzea errazteko, onura publikoko jarduerak egiten laguntzeko eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeria betetzeko. Eta honako klausula hauek arautuko dute lankidetzaren hitzarmena:

KLAUSULAK

1.- Hitzarmenaren xedea eta udal bakoitzak egin beharreko jarduerak

Lankidetzaren hitzarmen honen xedea da ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxeak eskainiko dituen jarduerak eta zerbitzuak abian jartzeko eta garatzeko baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak ematea. Horretarako, Inpernu kaleko 5, 7 eraikinak eta Emakumeon plazako 1 eraikina, Tolosako Udalaren titulartasunpekoak direnak, erabiliko dituzte hitzarmen hau sinatzen duten 24 udalek, Tolosaldean feminismoaren eta berdintasunaren alde lan egiten duten emakume eta kolektibo guztien erreferentziazko topagune eta errekonozimendu gisa, emakumeen ahalduz kolektiboa, feminismoaren hedapena eta eskualdean berdintasuna sustatzea bultzatuz.

Helburu horiek lortzeko, lankidetzaren hitzarmen hau sinatzen duten 24 udalek konpromisoa hartzen dute ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxeari jarduera garatzeko behar beste baliabide ekonomiko eta giza baliabide emateko, urteko aurrekontu-partida bat esleitzuz eta hornituz, hitzarmenaren iraupenaren mende egongo dena.

2.- Udal bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak

ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen funtzionamendu egokia bermatuko duen finantzaketa lankidetzaren hitzarmen hau sinatzen duten 24 udalen artean partekatuko da.

Batetik, Tolosako Udalak, Inpernu kalea 5, 7ko eta Emakumeon plaza 1eko lokalen jabe den aldetik, amaitutako ekipamenduaren inbertsio osoa finantzatu du:

- *Tolosaldeko Emakumeen Etxearen obra-aurreproiektua, 8.385,30 euroko gastuarekin.*
- *Proiektua idaztea eta obra-zuzendaritza, guztira 33.540,00 euroko gastuarekin.*
 - *Eraberritzeko oinarritzko proiektua eta exekuzioa, guztira 597.709,22 euroko gastuarekin.*
 - *Altzariak hornitzea eta instalatzea: 93.775,00 euroko gastuarekin*

Guztira: 733.409,52€

Parte hartzeko prozesuetatik eratorritako kostuak:

- *2018an lehen parte-hartze prozesua: 18.089,49 euroko gastua*
- *2019an komunikazio jarduerak: 2.796,59 euroko gastua*
- *2019an errefortzu teknikoa: 4.737,33 euroko gastua*
- *2020an 1.949,41 euroko gastua*
- *2021ean bigarren parte-hartze prozesua: 11.707,20 euroko gastua*

Guztira, 39.280,02 €

GUZTIRA: 733.409,52 + 39.280,02= 772.689,54 €

Gainera, Tolosako Udalak ekarpen ekonomiko bat egingo du Tolosaldeko beste 23 udalekin modu proportzionalen eta partekatuan, sortutako gastuei aurre egiteko, honako gastu hauetarako:

- *Mantentze-lanak (ura, elektrizitatea, garbiketa, gasa, etab.). Berdintasun Sailak eraikinak arlo horrek urtero programatzen dituen jarduerak eta zerbitzuak garatzeko erabiltzetik eratorritako gastuak ordainduko ditu.*
- *Eraikinak eta altzariak konpontzeak eta birjartzeak eragindako gastuak*
- *Jardueren eta programen garapena*
- *Emakumeei arreta eta aholkularitza juridiko eta psikologikoa eskaintzeko Etxean ematen diren zerbitzuak.*
- *Ez ditu finantzatu etxea dinamizatzeko zerbitzuak eragindako gastuak.*

Bestalde, gainerako 23 udalek modu proportzionalen eta partekatuan aurre egiteko gastuak finantzatu dituzte, honako hauetarako:

- *Mantentze-lanak (ura, elektrizitatea, garbiketa, gasa, etab.)*
- *Eraikinak eta altzariak konpontzeak eta birjartzeak eragindako gastuak*
- *Jardueren eta programen garapena*
- *Emakumeei arreta eta aholkularitza juridiko eta psikologikoa eskaintzeko Etxean ematen diren zerbitzuak.*
- *Tolosaldeko 23 udalek finantzatu dute etxea dinamizatzeko zerbitzu osoa.*

Eranskinetan jasotzen diren zenbatekoak gutxi gorabeherakoak dira, 2022an egindako azterketa ekonomikoaren arabera ezarriak.

Udal bakoitzak egin beharreko ekarpenaren irizpidea ekitaldian aurreikusitako diru-sarrera arrunten baturatik ateratzen den zifraren urteko zenbatekoaren arabera ezarriko da.

3.- Likidazio- eta ordainketa-araubidea

Hitzarmen honek eragindako gastuak Tolosaldeko 24 udalek ordainduko dituzte, bakoitzak duen partaidetzaren arabera. Guztizko kostua 380.880,00 eurokoa izango da. (I. Eranskina, 3. taula), Beraz, Udalek kreditu egokia eta nahikoa izan beharko dute hitzarmena gauzatzeko eragingo dizkien betebeharrak ekonomikoak aurre egiteko.

Tolosaldea Garatzen, S.A.k dagozkien gastuen tarifak igorriko dizkie Tolosaldeko 24 udalei. Dokumentazio hori egiaztatu ondoren, Udal bakoitzak, urteroko ekainaren 30eko epean ordainduko du horri dagokion zenbatekoa. I. Eranskinean jasotako kostuak aurreikuspenak dira eta aldaketak egon daitezke bertan jasotako kopuruen eta urteroko likidazioaren artean (benetan izandako kostua txikiagoa edo handiagoa izan daiteke). Urteroko likidazioa egiterakoan izandako kostuen kitapena egingo da, hau da, izandako gastua aurreikusitakoa baino handiagoa bada, udal bakoitzak dagokion zenbatekoa ordainduko du; gastua, aldi, aurreikusitakoa baino txikiagoa izan bada, udal bakoitzak Tolosaldea Garatzeni diferentzia itzultzeko eskatuko dio.

4.- Hitzarmenaren eta hartutako konpromisoen jarraipena eta zaintza egiteko, eta betetzen direla kontrolatzeko mekanismoak.

4.1.- Hitzarmenaren Jarraipen eta Kontrol Batzordea

Jardueren jarraipena eta kontrola egiteko sistema bat ezarriko da, bai eta sor daitezkeen arazoak konpontzeko sistema ere.

4.1.- Batzordearen osaketa:

Batzorde hori 4 pertsonak osatuko dute:

Tolosako Udaleko ordezkari bat.

Tolosaldeko udaleko 2 ordezkari.

Idazkaritza teknikoaz arduratuko den pertsona bat: deialdiak bidali eta bileren aktak idatzi beharko ditu.

Batzorde hori izango da hitzarmen hau sinatzen duten 24 udalen arteko lankidetzarako bidea, bai eta interpretazio-arazoak konpontzeko, hitzarmenaren betearazpenaren jarraipena egiteko eta hartutako konpromisoak betetzeko bidea ere.

Erabakiak adostasunez edo kontsentsuz hartuko dira; adostasunik ez badago bozkatu egingo da, gehiengo soilaren bidez hartuko da erabakia. Idazkaritza teknikoak ez du bozketan parte hartuko.

4.2.- Jarraipen eta Kontrol Batzordearen eskumenak

ANDRAGORA, Emakumeen Etxeak eskaintzen dituen zerbitzuen kudeaketaren eta finantzaketaren kontrola, ebaluazioa eta jarraipena egitea.

Hitzarmen honen klausulak interpretatzea.

Hitzarmen honen edo haren aldaketen bidez 24 udalek hartutako konpromisoak ez betetzeagatik aldebakarreko salaketa jarri aurreko txostena egitea.

Zerbitzuen kudeaketari lotutako zuzeneko edo zeharkako kostuak finantzatzearen aldeko aurretiazko txostena egitea, finantzaketa partekatuen atalean adierazitakoaren arabera.

Hitzarmena aldez aurretik azkentzen bada, Jarraipen eta Kontrol Batzordeak txostena eta ebazpen-proposamena egingo ditu.

Abian diren jarduketak amaitzeko moduari buruzko ebazpena, bai eta horiei aplikatu beharreko likidazioa ere, hitzarmena aurretiaz azkentzen bada.

4.3.- Jarraipen eta Kontrol Batzordearen eginkizunak

Batzordea osatzen duen edozein pertsonak eskatutakoan bilduko da, eta bilera horien akta egingo da. Akta horretan, eztabaidatutako alderdiak eta lortutako akordioak jasoko dira, eta bertaraturako ordezkari politikoek sinatu beharko dute.

Batzordeko edozein kidek proposatuta, Tolosaldeko 24 udaletako beste ordezkari batzuek ere parte hartu ahal izango dute Batzordearen bileretan.

Batzordearen bilerak baliozkotzat jotzeko, Lankidetzeta-hitzarmen honetako 1. atalean aipatutako pertsona guztiek egon beharko dute bertan.

Lehenengo urtean, Jarraipen eta Kontrol Batzordea hilean behin bilduko da, eta, ondoren, hiru hilean behin egin ahal izango da.

Ezohiko bilerak behar adina aldiz bildu ahal izango da, alderdietako edozeinek eskatuta.

5.- Indarrean sartzea

Lankidetzeta-hitzarmen honek 4 urteko indarraldia izango du, sinatzen den egunetik zenbatzen hasita. Beti ere, baldintzatuta egongo da, Tolosaldea Garatzen elkarteari egindako enkargua. Lankidetzeta-hitzarmenean aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmena sinatu duten 24 udalek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena luzatzea, gehienez ere beste lau urtez.

Indarraldiaren edo luzapenaren barruan, hitzarmen hau aldatu ahal izango da, baldin eta udal guztiek hala adosten badute. Edozein aldaketa idatziz jaso beharko da, udalek sinatu beharko dute. Tresna honi eranskin gisa gehituko zaio.

6.- Hitzarmena azkentzea

Hitzarmen hau azkendu egingo da haren xede diren jarduketak betetzen ez direnean edo hitzarmena suntsiarazteko arrazoiren bat dagoenean.

Hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoiak hauek izango dira:

Indarraldia igarotzea, luzatzea erabaki gabe.

- Sinatzaile guztiek, aho batez, hala erabakitzea.*
- Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak, edo horien aldaketak ez betetzea. Kontratua iraungitzeak konpromiso eta betebeharrak betetzen ez dituen udalarentzat izango ditu ondorioak.*

Kasu horietan, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio ez-betetzea egin duen alderdiari, epe jakin batean bete ditzan hartu gabekotzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu hori txosten baten bidez jakinaraziko zaio Hitzarmenaren Jarraipen eta Kontrol Batzordeari.

Errekerimenduan adierazitako epea igarotakoan ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, hori zuzendu zuen alderdiak alderdi sinatzaileei jakinaraziko die suntsiarazteko arrazoia gertatu dela, eta hitzarmena suntsitutzat joko da. Arrazoi hori dela-eta hitzarmena suntsiarazten bada, eragindako kalteak ordaindu beharko dira.

- Erabaki judizial batek hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzeko.*

- *Hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusita ez dagoen beste edozein arrazoi sortzea.*

Hitzarmena aldez aurretik azkentzen bada, Jarraipen eta Kontrol Batzordeak ebazpen-proposamen bat egin eta horren berri emango du, eta udal sinatzaile bakoitzak onartu beharko du. Proposamen horretan, honako hauek azalduko dira: egiten ari diren jarduerak amaitzeko modua, jarduera horiei aplikatu beharreko likidazioa eta ANDRAGORA Tolosaldeko Emakumeen Etxean zerbitzuak ematen jarraitzeko mekanismoak.

7.- Hitzarmena suntsiaraztearen ondorioak

1.- Hitzarmen hau betetzeak eta suntsiarazteak horiek likidatzea ekarriko du, alderdi bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak zehazte aldera.

2.- Hitzarmen honetatik eratorritzen diren finantza-konpromisoak betetzat joko dira, hitzarmenaren xedea alderdiek beren eskumenean arabera bete dutenean, betiere honako arau hauek kontuan hartuta:

a) Likidaziotik ondorioztatzen bada udalen batek egindako diru-ekarpena txikiagoa dela benetan izandako gastua baino, likidazioa onartu eta gehienez ere hilabeteko epean ordaindu beharko dio Tolosaldea Garatzeni dagokion zenbatekoa.

b) Likidaziotik ondorioztatzen bada udalen batek egindako diru-ekarpena handiagoa dela benetan izandako gastua baino, udal horrek eskatu beharko dio Tolosaldea Garatzeni diferentzia itzultzeko.

3.- Aurrekoa gorabehera, hitzarmena suntsiarazteko arrazoiren bat gertatzen denean egikaritze-bidean diren jarduketak badaude, hitzarmen honetako udalek, hitzarmenaren Jarraipen eta Kontrol Batzordearen proposamenez, edo, halakorik ezean, abian diren eta bidezkotzat jotzen dituzten jarduketekin jarraitzea eta amaitzea erabaki ahal izango dute, eta epe luzaezin bat ezarri ahal izango dute horiek amaitzeko. Epe hori igarotakoan, jarduketan likidazioa egin beharko da, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera.

8.- Udal bat Lankidetzat Hitzarmenari atxikitzea

Azterketa ekonomikoa udal berriak hartutako konpromisoen arabera arautu beharko da.

Hitzarmen hau sinatu duten udal guztiek onartu beharko dute, eta, ondoren, beste lankidetzat-hitzarmen bat sinatuko da, edo eranski modura atxikituko da.

9.- Alderdien lankidetzat-betebeharra

Parte hartzen duten udalen lankidetzat-adierazpena, Hitzarmen honetan hartutako konpromisoei dagokienez lankidetzat aritzeko konpromisoa hartzen baitute, bai eta hitzarmen honen xede diren jarduerak egiteko eta zerbitzuak emateko baliabideak emateko konpromisoa ere.

10.- Datu pertsonalen babesa

Sinatu duten 24 udalek konpromisoa hartu dute Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzko arauak ezartzen dituena) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko.

11.- Araubide juridikoa

Lankidetzat-hitzarmen honen izaera administratiboa da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen VI. kapituluaren xedatutakoaren arabera.

Hitzarmena garatu eta beteaztean alderdien artean sortzen diren auziak, 5.2 klausulan aurreikusitako Jarraipen eta Kontrol Batzordean ebatzi ezin direnak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen xedatutakoaren arabera.

12.- Eranskinak

BIGARRENA.- Erabaki hau interesatuei jakinaraztea eta, hurregon batzarraldian zinegotzie jakinaraztea.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio bideari.

Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, Dekretu hau izenpetzen dut.

Gorka Murua Macuso
Alkateak
Arrizabalaga Gainza

Nire aurrean
Irantzu

Idazkariak

Elektronikoki sinatua

Elektronikoki sinatua

Halaber, honako webgune hauek baztertuko dira dirulaguntza emateko orduan:

— Webgune pertsonalak.

— Edozein erakunde publikori lotutako enpresa, talde, elkarte eta abarretako webguneak.

— Eduki iraingarria edota pertsonen eskubideen aurkako edukia duten web orriak.

— Beren edukietara sartzeko edozein muga jartzen duten web orriak edo zerbitzuaren truke ordainketa eskatzen dutenak.

— Helburu berbererako lehendik dirulaguntza jaso duten web orriak.

8. Dirulaguntza emateko prozedura.

Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka bidez tramitatuko da.

Dirulaguntzak Alkatetzaren Dekretu bidez emango dira, eta horretarako, gehienez ere, hiru hilabeteko epea izango da.

9. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Dirulaguntza emateko eta zenbatekoa erabakitzeko, alderdi hauek baloratuko dira:

— Gunearen edukiak etengabe eguneratzeko jarriko diren bitartekoak.

— Forma eta diseinu aldetik landua izatea, argia eta erabilerraza.

— Ezintasunak dituztenentzat aproposa izatea.

— Bisitari kopurua.

Ondoko irizpide hauen arabera banatuko dira dirulaguntzak:

— Web orria euskara hutsez izateagatik, kostuaren %50eko dirulaguntza emango dio eskatzaileari. Nolanahi ere, dirulaguntza ez da 450 eurotik gorakoa izango.

— Web orriko hasiera orria euskara hutsean eta gainontzekoa euskaraz eta beste hizkuntzaren batean izateagatik, kostuaren %40eko dirulaguntza emango dio eskatzaileari. Nolanahi ere, dirulaguntza ez da 360 eurotik gorakoa izango.

— Web orria euskaraz eta beste hizkuntzaren batean izateagatik, kostuaren %20ko dirulaguntza emango dio eskatzaileari. Nolanahi ere, dirulaguntza ez da 180 eurotik gorakoa izango.

Irurako Udalak bere urteko aurrekontuetan jasoko du dirulaguntza hauek emateko dagokion partida eta kopurua.

Laguntzetarako aurreikusitako diru izendapena goian adierazitako dirulaguntza emateko bestekoa ez bada, dirulaguntzen onuradunen artean, dirulaguntzetarako den gehienezko zenbateko osoaren banaketa proportzionala egingo da.

10. Onuradunen betebeharrak.

Honako hauek dira dirulaguntza honen onuradunek bete beharko dituzten betebeharrak:

- Dirulaguntza gai izan den jarduera bete-betean burutzea.
- Dirulaguntza zertarako eman den, hartarako erabili behar da.
- Irurako Udalari adierazi egin beharko zaio, berak diruz lagundutako jarduera hau burutzeko, beste dirulaguntzaren bat eskuratu al den.
- Onuradunek indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak orokorrak bete beharko dituzte.

11. Dirulaguntzen ordainketa.

Dirulaguntzaren %100 ordainduko da, emateko erabakia hartzerakoan, ordainketa bakar batean.

12. Dirulaguntza aldatzea.

Dirulaguntza ematerako orduan kontuan izan diren baldintzak aldatzen badira, eta nolanahi ere, beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik norgehiagoka bidez laguntzak jasotzen badira, emakidari buruzko erabakia aldatu ahal izango da.

13. Betebeharrak ez betetzea.

Onuradunak deialdi honetan aurreikusten diren baldintzetako bat ez betetzeak, dirulaguntza iraungiaraztea edo gutxitzea ekarriko du. Dena den, Dirulaguntzetarako Orokorra den azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikulua eta harekin bat datorren gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

14. Interpretazioa.

Irurako Udaleko Euskara Batzordeak erabakiko du oinarri hauek interpretatzean sor daitekeen edozein zalantza.

15. Ordezko araudia.

Oinarri hauetan aurreikusten ez den guztirako, Herri Erakundeei aplikatu beharreko araudiak dioena beteko da, bereziki, Dirulaguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailak 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako Legeak zehazten duen Arautegiak diotena hartuko dira kontuan.

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA. 6 boto Eh Bildu eta 3 boto EAJ.

7.- ANOETA, IRURA, ALEGIA, IKAZTEGIETA, ALTZO, AMEZKETA, BALIARRAIN, ORENDAIN ETA ABALTZISKETAKO UDALERRIETAKO BAKE-EPAITEGIEN IDAZKARITZEN ELKARTEA SORTZEKO PROPOSAMENA ONARTZEA.

Alkateak, momentu honetan Bake epaitegietakoko egoera azaldu du eta halaber, eman beharreko pausuak azaldu ditu. Gaineratu du, Bake epaitegiko agrupazioa sortuko dugun herri guztiak, Amezketa ezik (herri euskaldun bezala baldintzak betetzen dituen) UEMAko partaide garena eta Eusko Jaurlaritzari hizkuntza eskubideak bermatzeko baldintza azpimarratzen zaiola hitzarmenean. Jarraian, Idazkariak hartu du hitza eta adierazi du, zinegotzietan banatu zaien dokumentuan adibide bat falta duela, Amezketako udalean duela gutxi gertatu denaren isla jasotzen duena alegia. Ahobiz irakurri du Idazkariak paragrafoa eta azaldu du, dokumentuaren edukia ez dela inolaz ere ikutu.

Jarraian bozkatzera pasa dira zinegotziak.

ANOETA, IRURA, ALEGIA, IKAZTEGIETA, ALTZO, AMEZKETA, BALIARRAIN, ORENDAIN ETA ABALTZISKETAKO UDALERRIETAKO BAKE-EPAITEGIEN IDAZKARITZEN ELKARTEA SORTZEA - OSOKO BILKURARAKO ERABAKI PROPOSAMENA -

bestek beste, honako erabakia hartu du gai zerrendako X puntuaren gainean:

“ ...

ANOETA, IRURA, ALEGIA, IKAZTEGIETA, ALTZO, AMEZKETA, BALIARRAIN, ORENDAIN ETA ABALTZISKETAKO UDALERRIETAKO BAKE-EPAITEGIEN IDAZKARITZEN ELKARTEA SORTZEA

411/1998 Dekretuak, abenduaren 22koak, bake-epaitegietakoko Justiziar buruzkoak, V. kapituluaren arautzen ditu bake-epaitegietakoko idazkaritzen elkarteak. Bestek beste, 18. artikuluan elkarteak eratzeko baldintzak xedatzen ditu:

“ ...

Idazkaritzen elkarte bat eratzeko baldintzak hauek dira:

a) Bildu nahi diren bake-epaitegiek barruti judizial berekoak izan beharko dute.

b) Epaitegi horien egoitzen arteko komunikabideek egokiak izan beharko dute, idazkaritzak batu dituzten bake-epaitegi guztietako egitekoei behar den moduan erantzun ahal izateko.

...”

Kasu honetan, bake-epaitegien idazkaritzen elkarteak eratu nahi duten eskatzaileek goian adierazitako baldintzak betetzen dituzte:

a) Bildu nahi diren bake-epaitegi guztiak Tolosako barruti judizialekoak dira.

b) Epaitegi horien egoitzen arteko komunikabideak egokiak dira, idazkaritzak batu dituzten bake-epaitegi guztietako egitekoei behar den moduan erantzun ahal izateko, ondorengoak kontutan hartuta:

- i. Bake-epaitegi guztien arteko komunikazioa bermatzeko, Alegiako udalerrian kokatuko da elkartearen egoitza nagusia.

- ii. Alegiatik gainerako udalerrietara dauden distantziak 11 km-tik beherakoak dira eta udalerrri guztiak errepide, tren eta autobus bidez komunikatuta daude, udalerrri eskatzaileen artean egindako eta Osoko Bilkuraren deialdiarekin batera bidalitako memorian jasotzen den bezalaxe.

Halaber, abenduaren 22ko 411/1998 Dekretuaren 19. artikulua bake-epaitegien idazkaritzen elkarteak sortzeko prozedura hasteko bi aukera ematen ditu: ofizioz edota eraginpean dauden udalek arrazoituta eta eskatuta. Kasu honetan, bake-epaitegien idazkaritzen elkartearen eratzeko prozedura aldeek eskatuta hasten da eta, beraz, adierazitako arauaren 20. atalean ezarritako izapidetzea jarraitu beharko da.

Artikulu horren arabera, *“elkartera eratzeko eskabidea justiziaren alorreko eskumenak dituen sailean Justizia Administrazioako Harremanen eskumendun den Zuzendaritzari bidali beharko zaio” eta “eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:*

1.- Egiagtagiriak, eraginpean dauden udaletako udan organoek eginak, udal horiek elkartera eratzeko espedienteari hasiera ematea eta hurrengo puntuan aipatzen den txostenaren edukia onartu zituztela egiaztatzen dutenak.

2.- Elkartera eratzeari buruzko txostena”.

Batetik, egiagtagiriei dagokionez, eskariarekin batera aurkeztuko dira eraginpean gauden udalon osoko bilkurek hartutako akordioen ziurtagiriak, elkartera eratzeko espedienteari hasiera ematea eta elkartera eratzeari buruzko txostenaren edukia onartzea adosten dutenak. Bestetik, elkartera eratzeari buruzko txostenari dagokionez, deialdiarekin batera bidali den memorian jasotzen da, abenduaren 22ko 411/1998 Dekretuaren 20.2 artikuluan eskatutako puntu guztiekin, zeinetan justifikatuta geratzen den udalerrri eskatzaileei ezinezkoa zaigula bake-epaitegiak eta erregistro zibilak kudeatzea legeak ezarritako baldintzetan, ezta modu duinean ere, dauzkagun baliabide pertsonal eta materialekin behintzat. Hala, adierazitako memorian honako puntu hauek jorratu dira:

- a) Hartzen dituen bake-epaitegiak.
- b) Elkartearen egoitza.
- c) Eraginpeko bake-epaitegiek jasaten duten lan-karga, gutxienez bukatutako azken urte judizialari dagokionez.
- d) Udalerriko biztanleriaren datuak eta bake-epaitegietako egitekoei erantzuteko dauden langileak mantentzeko ekonomia baliabideak, proposatutako elkartera egokia dela justifikatzeko.
- e) Behar dituzten langileak eta elkartera osatuko duten epaitegietako lanegun, lanordu eta jendea hartzeko ordutegiaren hasierako programaziorako eta barne antolamendurako behin-behineko proposamena eta hileroko diren joan-etorrien aurreikuspena.
- f) Epaitegietako egoitzen artean eta elkarterako udal nagusien artean dauden komunikabideen egokitasunari buruzko aipamena.

Halaber, 411/1998 Dekretuak 20.2 artikuluan xedatutako horiez aparte, azken puntu bat ere landu da memorian, eskari moduan: “g) Euskara, proiektatutako elkartera osatzen duten udalerrien arteko elementu loteslea”. Izan ere, kontuan izan behar da Tolosaldea dela udalerrri euskaldunen eta arnaguneen kontzentrazio handienetakoa duen eskualdea eta, bereziki, bake-epaitegietako idazkaritzen elkartera sortzeko proiektua osatzen duten udalerrri guztiek dutela arnagune eta udalerrri euskaldun izaera komuna. Gainera, eskatzaile guztiak daude UEMAn (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean), Abaltzisketa izan ezik, bertan sartzeko ezaugarriak betetzen baditu ere. UEMAk 2021. urterako jasotako datuen arabera, udalerrri bakoitzeko euskaldunen ehunekoak ondorengoak dira:

Udalerriak	Euskaldunen %
Anoeta	71,23
Irura	73,01
Alegia	76,17
Amezketeta	88,80
Ikaztegieta	76,60
Altzo	87,63
Abaltzisketa	92,13
Orendain	87,21
Baliarrain	88,51

Beraz, agerikoa da, gertutasunaz eta barruti judizialaz at, euskara dela udalerrri guzti horien arteko sare naturala osatzen laguntzen duen funtsezko elementuetako bat.

Aurreko guztia oinarri hartuta, azpimarratu da memorian bake-epaitegien idazkaritzen elkarteak eratu nahi duten eskatzaile guztiontzako berebiziko garrantzia duela euskarazko zerbitzu duina mantentzeak eta bermatzeak behin elkarteak eratu ondoren, eta Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikuluan esleitzen zaizkigun eskumenen arabera, eskatzen da bake-epaitegiak idazkaritzen elkarteak esleitzen zaizkion langileek hizkuntza-gaitasun egokia izan dezatela zerbitzu egokia eta kalitatezkoa euskaraz emateko, eta hala eskaini dezatela. Aurrekoa

hiritarrei aitortzen zaizkien hizkuntza-eskubideak bermatuta gera daitezkeen eta eraginkorrak izan daitezkeen, alegia, bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan komunikatzeko eskubidea, ahoz edo idatziz, Administrazioarekin eta edozein erakunderekin, besteak beste Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5. artikulua eta Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren 6. artikulua aitortuta.

Horregatik guztiagatik, Anoeta, Irura, Alegia, Ikaztegieta, Altzo, Amezketeta, Baliarrain, Orendain eta Abaltzisketako udalerrietako bake-epaitegien idazkaritzen elkarteak eratzea proposatzen da, guztion artean egindako memoriaren baldintzetan.

Behin idazkariak aurrekoak azaltzeaz bukatutakoan, Udaltzarak, xxxxx, honakoa onartu du:

**ANOETA, IRURA, ALEGI, IKAZTEGIETA, ALTZO, AMEZKETA, BALIARRAIN, ORENDAIN
ETA ABALTZISKETAKO UDALERRIETAKO BAKE-EPAITEGIEN IDAZKARITZEN ELKARTEA
SORTZEA**

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea Anoeta, Irura, Alegia, Ikaztegieta, Altzo, Amezketeta, Baliarrain, Orendain eta Abaltzisketako udalerrietako bake-epaitegien idazkaritzen elkarteak eratzearen proposamena. espedienteari hasiera ematea.

BIGARRENA. Onartzea Anoeta, Irura, Alegia, Ikaztegieta, Altzo, Amezketeta, Baliarrain, Orendain eta Abaltzisketako udalerrietako bake-epaitegien idazkaritzen elkarteak eratzearen espedienteari hasiera ematea.

HIRUGARRENA. Onartzea espedienteari erantsitako txostenaren edo memoriaren edukia, abenduaren 22ko 411/1998 Dekretuaren 20.2 artikulua arabera.

LAUGARRENA. Eskatzea Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailburuari bake-epaitegietako idazkaritzen elkarteari esleitzen zaizkion langileek hizkuntza-gaitasun egokia izan dezatela zerbitzu egokia eta kalitatezkoa euskaraz emateko, eta hala eskaini dezatela.

BOSGARRENA. Erabakiaren berri ematea Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailburuari, espedientearen izapidetzea lehenbailehen egin dadila erregutuz.

.....n, 2023ko irailaren 26an.

**ANOETA, IRURA, ALEGIA, IKAZTEGIETA, ALTZO, AMEZKETA,
BALIARRAIN, ORENDAIN ETA ABALTZISKETAKO UDALERRIETAKO
BAKE-EPAITEGIEN IDAZKARITZEN ELKARTEA SORTZEA**

Anoeta, Irura, Alegia, Ikaztegieta, Altzo, Amezketa, Baliarrain, Orendain eta Abaltzisketako Udalerriek beren bake-epaitegien idazkaritzen elkarte sortu nahi dute eta, horretarako, bake-epaitegietako Justiziar buruzko abenduaren 22ko 411/1998 Dekretuaren 20. artikulua xedatutakoa betetzeko, honako memoria hau idazten dute:

MEMORIA

A. BAKE-EPAITEGIEN AGRUPAZIOA ERATZEKO BALDINTZAK

411/1998 Dekretuak, abenduaren 22koak, bake-epaitegietako Justiziar buruzkoak, V. kapituluaren arautzen ditu bake-epaitegietako idazkaritzen elkarteak. Besteak beste, 18. artikuluan elkarteak eratzeko baldintzak xedatzen ditu:

“... ”

Idazkaritzen elkarte bat eratzeko baldintzak hauek dira:

a) Bildu nahi diren bake-epaitegiek barruti judizial berekoak izan beharko dute.

b) Epaitegi horien egoitzen arteko komunikabideek egokiak izan beharko dute, idazkaritzak batu dituzten bake-epaitegi guztietako egitekoei behar den moduan erantzun ahal izateko.

...”

Kasu honetan, bake-epaitegien idazkaritzen elkarte eratu nahi duten eskatzaileek goian adierazitako baldintzak betetzen dituzte:

a) Bildu nahi diren bake-epaitegi guztiak Tolosako barruti judizialekoak dira.

b) Epaitegi horien egoitzen arteko komunikabideak egokiak dira, idazkaritzak

batu dituzten bake-epaitegi guztietako egitekoei behar den moduan erantzun ahal izateko, ondorengoak kontutan hartuta:

- iii. Bake-epaitegi guztien arteko komunikazioa bermatzeko, Alegiako udalerrian kokatuko da elkartearen egoitza nagusia.
- iv. Alegiatik gainerako udalerrietara dauden distantziak hauek dira:

Alegia - Irura:	10,3 km
Alegia - Anoeta:	10,9 km
Alegia - Ikaztegieta:	2,5 km
Alegia - Amezqueta:	8 km
Alegia - Abaltzisketa:	10,4 km
Alegia - Orendain:	6,7 km
Alegia - Baliarrain:	6,3 km
Alegia - Altzo:	3,7 km

- v. Udalerrien arteko komunikazioa honako era honetan antolatuko da:

Udalerriak	Errepideak	Trenak	Autobusak
Alegia - Irura	N-1 / GI-2131		
Alegia - Anoeta	N-1 / GI-2131	C1	
Alegia - Ikaztegieta	N-1 / GI-2131	C1	
Alegia - Amezqueta	GI-2131 / GI-2133		B01
Alegia - Abaltzisketa	GI-2131 / GI-3670 / GI-2133		B01
Alegia - Orendain	GI-2131 / GI-3670		T024E
Alegia - Baliarrain	A-1 eta GI-2131		T026E
Alegia - Altzo	GI-2133 eta GI-3620		T025E

B. ESKARIA

Abenduaren 22ko 411/1998 Dekretuaren 19. artikulua bake-epaitegien idazkaritzen elkarteak sortzeko prozedura hasteko bi aukera ematen ditu: ofizioz edota eraginpean dauden udalek arrazoituta eta eskatuta.

Kasu honetan, bake-epaitegien idazkaritzen elkartearen eratzeko prozedura aldeek eskatuta hasten da eta, beraz, adierazitako arauaren 20. atalean ezarritako izapidetzea jarraitu beharko da. Artikulu horren arabera, *“elkartera eratzeko eskabidea justiziaren alorreko eskumenak dituen sailean Justizia Administrazioako Harremanen eskumendun den Zuzendaritzari bidali beharko zaio”* eta *“eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:*

1.- Egiaztagiriak, eraginpean dauden udaletako udan organoek eginak, udal horiek elkartera eratzeko espedienteari hasiera ematea eta hurrengo puntuan

aipatzen den txostenaren edukia onartu zituztela egiaztatzen dutenak.

2.- Elkarte eratzeari buruzko txostena”.

B.1. Egiaztagiria

Memoria honi erantzen zaizkio eraginpean dauden udalen osoko bilkurek hartutako akordioen ziurtagiriak, udal horiek elkartea eratzeko espedienteari hasiera ematea eta elkartea eratzeari buruzko txostenaren edukia onartzea adosten dutenak.

B.2. Txostena

Abenduaren 22ko 411/1998 Dekretuaren 20. atalaren 2. lerroak elkartea eratzeari buruzko txostenak jaso behar dituen datuak xedatzen ditu, jarraian banan-banan aztertuko ditugunak:

a) Hartzen dituen bake-epaitegiak.

Eratzea eskatzen den elkarte honek honako udalerrri eta bake epaitegi hauek bilduko ditu:

Udalerriak	Biztanleak
Anoeta	2.079
Irura	1.885
Alegia	1.740
Amezketza	948
Ikaztegieta	483
Altzo	428
Abaltzisketa	309
Orendain	246
Baliarrain	152
GUZTIRA	8.270

b) Elkartearen egoitza.

Udal bakoitzak dituen baliabideak kontutan hartuta, baita gainerako udalerrenganako gertutasuna ere, elkartearen egoitza Alegiako Udaletxeko bake-epaitegiko aretoa izango da, hurrengo helbidea duena: Enparantza nagusia, z/g, 20260 Alegia (Gipuzkoa). Egoitza nagusi honetaz gain, udalerrri bakoitzeko gaur egungo bake-epaitegiko eta erregistro zibileko bulegoa partekatuko da.

c) Eraginpeko bake-epaitegiek jasaten duten lan-karga, gutxienez bukatutako azken urte judizialari dagokionez.

Gizartearen aldaketak, digitalizazioak, aplikazio informatiko berrien ezarpenak, baliabide propiorik ez izateak, formakuntza eskasiak eta horren ondoriozko ezagutza faltak zein ziurtasun ezak dira, besteak beste, bake-epaitegiei eta erregistro zibilei dagozkien eginkizunak zailtzea areagotu duten arrazoiak, baita horrekin lotutako lan-karga handiagotu dutenak ere.

Udaletako idazkariak ezin diote aurre egin bake-epaitegietako idazkaritza-eginkizunei, beraien funtzio propioekin gainetza baitaude. Gainera, erantzukizun handiko eta berebiziko ondorio izan ditzaketen funtzioak dira, arreta eta dedikazio eskusiboa behar dituztenak.

Bestalde, Bake Epaitegiko idazkaria Udaleko idazkaria ez den beste pertsona bat duten udalerrietan, Anoetan eta Iruran, esaterako, adierazitako arrazoiak ezinezko egiten dute pertsona bat eginkizunez arduratzea. Anoetako kasuan, adibidez, Udaletik kanpoko pertsona bat aukeratu zen Bake Epaitegiko idazkari, Udaleko Idazkaritzako lanpostuan izandako joan-etorriengatik eta egonkortasunik ezagatik. Pertsona horrentzako ez zen ordezkorik izendatu eta, beraz, lanpostura falta den egunetan Anoeta Bake Epaitegiko eta Erregistro Zibileko zerbitzurik gabe geratu da. Egoera hori larriagotu egin da azken hilabeteetan, Bake Epaitegiko idazkariaren baja medikoa dela eta; izan ere, denbora luzea da Anoetak ezin duela inskripziorik egin, ziurtagiririk eman, exhortorik bete, jakinarazpenak egin... Egoera berean dago, momentu honetan, Irurako bake-epaitegia, bertako funtzioak eramaten dituen langilea mediku-bajan baitago.

Lan-karga hori modu objektiboagoan islatzeko, hara hemen 2022. urtean bake-epaitegi eta erregistro zibil bakoitzak jasandako lanen kopurua:

Epaitegia Espediente	Erregistroko	Erregistroko	Espediente	
	inskripzioak	espedienteak	zibilak	penalak
ANOETA	038	014	092	067
IRURA	058	058	050	129
ALEGIA	043	006	033	118
IKAZTEGIETA	009	010	22	10
AMEZKETA	014	027	021	039
ALTZO	005	002	019	010
BALIARRAIN	006	020	12	06
ORENDAIN	010	025	18	12
ABALTZISKETA	018	046	20	26

d) Udalerriko biztanleriaren datuak eta bake-epaitegietako egitekoei erantzuteko

dauden langileak mantentzeko ekonomia baliabideak, proposatutako elkartea egokia dela justifikatzeko.

Udalerriak	Biztanleak	Gizonak	Emakumeak	Atzerritarrak	< 16 urte	≥ 65 urte
Anoeta	2.079	1.070	1.009	177	378	379
Irura	1.885	994	891	186	427	193
Alegia	1.740	901	839	194	279	361
Amezketeta	948	507	441	43	149	199
Ikaztegieta	483	252	231	64	77	104
Altzo	428	224	204	11	71	78
Abaltzisketa	309	169	140	14	41	56
Orendain	246	116	130	11	61	36
Baliarrain	152	86	66	10	42	18
GUZTIRA	8.270	4.319	3.951	710	1.525	1.424

Bake-epaitegien idazkaritzen elkartea eratu nahi duten eskatzaileen artean hainbat egoera desberdin daude.

Batetik, Anoetan, bake-epaitegia eta erregistro zibila kudeatzeko eginkizunak udalaz kanpoko pertsona batek eramaten ditu, Udalak antolatutako deialdian aurkeztutako pertsona egokien artean aukeratutakoa, eta Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saitetik dagokion esleipena kobratzen du. Horrela, bake-epaitegieta egitekoei erantzuteko dauden langileak mantentzeko ekonomia baliabide ekonomikoak dagokienez, hautaketa-prozesu horiek egiten eta izapidetzen dihardutenetara mugatuko lirateke, baita bake-epaitegia eta erregistro zibila ardurapeko pertsonaren baja luzearen ondorioz arretarik gabe egon diren hilabeteetan erabiltzaileei arreta emateko Udaleko harrerak, idazkaritzak eta bulego nagusiek jasan duten administrazio-karga handiagoari dagozkionak ere.

Bestetik, Iruran, Udaleko administraria da bake-epaitegiko eta erregistro zibileko egitekoez arduratzen dena; beraz, bake-epaitegieta egitekoei erantzuteko dauden langileak mantentzeko ekonomia baliabide ekonomikoak bere soldataren % 5ean kalkulatu ahalko lirateke, gutxienez.

Azkenik, gainerako udalerrietan udaletako idazkariak berek kudeatzen dituzte beren bake-epaitegiak eta erregistro zibilak. Gainera, Abaltzisketa, Orendain eta Baliarrain udalerrien kasuan, Idazkari bakarra partekatzen dute. Hortaz, kasu horietan, kontuan hartuta udaletako idazkariaren berezko lan-zama, baita beren eginkizunak betetzeko duten autonomia eta bakardadea ere, bake-epaitegieta egitekoei erantzuteko dauden langileak mantentzeko ekonomia baliabide ekonomikoak idazkariaren soldataren % 5ean kalkulatu ahalko lirateke, gutxienez. Azken horien artean, halaber, badaude zenbait kasu non, Idazkariaren gain, administrari laguntzailea ere bake-epaitegiko eta erregistro zibileko funtzioez arduratzen den. Adibidetzat, Alegiako udalerria legoke, zeinaren arabera bere administrari laguntzailearen soldataren % 25a bake-epaitegiko eta erregistro zibileko funtzioetan destinatuko litzateke.

e) Behar dituzten langileak eta elkarte osatuko duten epaitegietako lanegun, lanordu eta jendea hartzeko ordutegiaren hasierako programaziorako eta barne antolamendurako behin-behineko proposamena eta hileroko egingo diren joan-etorrien aurreikuspena.

Kontutan hartuta udalerrri eskatzaileen kopurua, pilatutako biztanle kopurua eta lan-zama, eta erreferentziatutako hartuta eskualdeko beste elkarte batzuei esleitutako pertsonala, eratzeko eskatzen den bake-epaitegien idazkaritzen elkarteko lana aurrera atera ahal izateko, aurreikusten da, gutxienez, ondorengo langileak beharko direla:

- Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoko pertsona bat, lanaldi osoan.
- Izapidetze Prozesaleko Kidegoko edo Laguntza Judizialeko Kidegoko beste bat, lanaldi osoan.

Bestalde, elkarte osatuko duten epaitegietako lanegun, lanordu eta jendea hartzeko ordutegiaren hasierako programaziorako proposamenari dagokionez, biztanle kopuruaren eta udalerrien gertutasunaren arabera, horrelakoa izatea proposatzen da, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko zuzendaritzak azkenean erabakitzen duenari kalterik egin gabe:

Udalerrriak	Biztanleak	Asteko dedikazioa	Jendaurreko egunak	Jendaurreko ordutegia
Anoeta	2.079	8,30 ordu /astean	Astehena Osteguna	8.30 - 10.30
Irura	1.885	7,45 ordu/astean	Astehena Osteguna	11.00 -13.00
Alegia	1.740	7,00 ordu /astean	Asteartea	11.00 - 12.00
Amezketza	948	4,24 ordu/astean	Asteazkena	8.30 - 12.00
Ikaztegietza	483	2,16 ordu /astean	Ostirala	9.00 - 11.00
Altzo	428	2,00 ordu /astean	Asteartea	8.30 - 10.30
Abaltzisketa	309	2,00 ordu /astean	Asteazkena	12.30 - 14.00
Orendain	246	2,00 ordu /astean	Asteartea	12.30 - 14.00
Baliarrain	152	2,00 ordu /astean	Ostirala	11.30 - 13.00

f) Epaitegietako egoitzen artean eta elkarteko udal nagusien artean dauden komunikabideen egokitasunari buruzko aipamena.

Epaitegietako egoitzen artean eta elkarteko udal nagusien artean dauden komunikabideak egokiak dira beraien artean elkarte eratzeko, ondorengo taulan argitzen den bezala:

Udalerrriak Errepideak Trenak Autobusak

Alegia - Irura	N-1 / GI-2131		
Alegia - Anoeta	N-1 / GI-2131	C1	
Alegia - Ikaztegieta	N-1 / GI-2131	C1	
Alegia – Amezketeta	GI-2131 / GI-2133		B01
Alegia – Abaltzisketa	GI-2131 / GI-3670 / GI-2133		B01
Alegia – Orendain	GI-2131 / GI-3670		T024E
Alegia - Baliarrain	A-1 eta GI-2131		T026E
Alegia - Altzo	GI-2133 eta GI-3620		T025E

Elkartearen egoitzatik, Alegiatik, urrunen dauden bi gunek ordu laurden baino gutxiagora daude errepidetik joanez gero: hegoaldetik, Amezketeta, 9 minutura, eta iparraldetik, Irura, 11 minutura. Horietaz gain, goiko taulan ikusi daitekeen moduan, garraibide publikoak ere iristen dira udalerrri guztietara. Horrek guztiak erraztu egiten du bake-epaitegien eta erregistro zibilen kudeaketaz arduratuko diren langileek zerbitzua ematea, baita proiektatutako elkarteak osatzen duten udalerrri guztietako biztanleek zerbitzua eskura izatea ere.

g) Euskara, proiektatutako elkarteak osatzen duten udalerrrien arteko elementu loteslea.

Tolosaldea da udalerrri euskaldunen eta arnaseguneen kontzentrazio handienetakoa duen eskualdea. Izan ere, bake-epaitegietako idazkaritzaren elkarteak sortzeko proiektua osatzen duten udalerrri guztiak dute arnasegune eta udalerrri euskaldun izaera komuna.

Bi kontzeptu horiek hobeto ulertu ahal izateko, hona hemen horien arteko desberdintasun nagusiak:

- **ARNASEGUNE:** naturaltasun osoz euskaraz bizi den eta euskara transmititzen duen udalerrria da. Gehienetan % 80tik gorako euskaldunak ditu. Herri txikiak izaten dira gehienetan eta landa inguruneak.
- **UDALERRI EUSKALDUN:** nagusiki euskaraz bizi diren udalerrriak dira, baina gaztelaniaren presentzia handixeagoa dute. Gehienetan, euskaldunen kopurua %70-80 artean izaten dute, eta kalean eta etxeetan gutxiago erabiltzen da euskara (Anoeta eta Irura, adibidez).

Horretaz guztiaz gain, eskatzaile guztiak daude UEMAn (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean), Abaltzisketa izan ezik, bertan sartzeko ezaugarriak betetzen baditu ere. UEMAk 2021. urterako jasotako datuen arabera, udalerrri bakoitzeko euskaldunen ehunekoak ondorengoak dira:

Udalerrriak	Euskaldunen %
Anoeta	71,23
Irura	73,01
Alegia	76,17
Amezketeta	88,80
Ikaztegieta	76,60
Altzo	87,63

Abaltzisketa	92,13
Orendain	87,21
Baliarrain	88,51

Beraz, agerikoa da, gertutasunaz eta barruti judizialaz at, euskara dela udalerrri guzti horien arteko sare naturala osatzen laguntzen duen funtsezko elementuetako bat.

Esandakoa oinarri, bake-epaitegien idazkaritzen elkarteak eratu nahi duten eskatzaile guztiontzako berebiziko garrantzia du euskarazko zerbitzu duina mantentzeak eta bermatzeak behin elkarteak eratu ondoren. Horregatik, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikuluan esleitzen zaizkigun eskumenen arabera,

ESKATZEN DUGU

Bake-epaitegietako idazkaritzen elkarteari esleitzen zaizkion langileek hizkuntza-gaitasun egokia izan dezatela zerbitzu egokia eta kalitatezkoa euskaraz emateko, eta hala eskaini dezatela. Aurrekoa herritarrei aitortzen zaizkien hizkuntza-eskubideak bermatuta gera daitezen eta eraginkorrak izan daitezen, alegia, bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan komunikatzeko eskubidea, ahoz edo idatziz, Administrazioarekin eta edozein erakunderekin, besteak beste Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5. artikulua eta Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren 6. artikulua aitortuta.

.....n, 2023ko irailaren 21ean.

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA. 6 boto Eh Bildu eta 3 boto EAJ.

8.- IRURAKO UDALA ETA GOIZPER S. COOP. ARTEKO HITZARMENA, KASKAILU PLAZAKO HAUR PARKEKO BERRIKUNTZA EGITEKO HELBURUAREKIN SINATZEKO ONARPENEA.

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du, Goizper Coop. Ez dagoela Iruran, baina Guibe enpresa baietz eta hori dela eta talde berekoak izanik, eta kooperatiba legeak hala behartuta, beraien irabazietako zati bat gizarte ekintzetara bideratu behar dutela.

Hori dela eta, Iruran, Udal taldeak gaia aztertu ondoren Kaskailu plaza eraberritzea erabaki dute, nahiz eta Goizperrek emandako 15.000€ euroak nahikoa ez izan.

Halaber, udalak egingo du Sektore publikoko kontratazio legearen prozedura jarraituz.

**IRURAKO UDALA ETA GOIZPER S.COOP. ARTEKO HITZARMENA,
KASKAILU PLAZAKO HAUR PARKEKO BERRIKUNTZA EGITEKO
HELBURUAREKIN**

BILDU DIRA:

Irurako Udaleko Idazkaria den Irantzu Arrizabalaga Gainza And.ren aurrean,

Batetik:

Iker GARTZIA JIMENEZ, 44.671.662G, NA zenbakiduna, **Goizper, S.Coop.**eko lehendakaria (2023ko urtarrilaren 17an, 72.protokolo zenbakidun eskriturak ematen dion ahalmenarekin) eta

Bestetik:

Gorka MURUA MACUSO, 44.142.319Y NA zenbakiduna, **Irurako Udaleko** Alkatea.

DIHARDUTE

Iker GARTZIA JIMENEZ, F20025441 IFZa duen Goizper, S.Coop. izenean eta hura ordezkatzuz, eta Gorka MURUA MACUSO, P2005000A IFZa duen IRURAKO UDALAREN izenean eta hura ordezkatzuz.

Ordenamendu juridikoak dokumentu hau sinatzeko ematen dizkien ahalmenen egikaritzan (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, 21.1.a. artikulua), bi alderdiek egintza hau egiteko beharrezko lege-ahalmena dutela onartzen diote elkarri, eta honako hau

ADIERAZI DUTE

Irurako Udalak eta Goizper S.Coop., Irurako udalerrian, onura publikokoa edo interes publikokoa edo gizarte-interesekoa helburuarekin Kaskailu plazako haur parkea (0-12 urte bitarteko haurrentzat egokitua) eraberritzea helburu duen hitzarmena gauzatzea.

Iruran, egun 1.880 biztanle daude, eta horietatik 280 0-12 urte bitarteko haurrak dira (135 neska eta 145 mutil), hau da, Irurako biztanleriaren % 14,90a.

Udal gobernua, egoki ikusten du, Iruran erroturik dauden enpresek beraien inplikazio modu honetan ikustaraztea.

Irurako Udalak, Kaskailu plazaren eraberritzearen aurrekontuko kalkulo ekonomikoa 45.000 €koa da gutxi gora-behera, parke berria (zabuak, balantzina, txirrista, etab.) eta gomazko zoladura.

Aldez aurretik, bi aldeek adostu dute eman nahi den hitzarmenaren eta zehazki proiektu honentzako bideratuko den laguntzaren kopurua, hau da, 15.000 €ko ekarpena egitea izango dela.

Irurako Udalak kontratuaren prezioa ordaintzeko aurtengo aurrekontuaren kontura finantzatzea aurreikusia dauka, eta aurrekontuen gaian eskumena duen organoak hitz ematen du dagokion kreditua gordeko duela (kontu izendapena: 1 0000.601.171.00.10).

Lankidetzaz hitzarmenek aukera ematen dute lankidetzaz-esparruan hainbat administrazio publiko eta erakunde pribatu sartzeko (LRJSP 47.). Lankidetzaz hitzarmen bat dela ulertzeko, erakunde sinatzaile guztientzako betebeharrak ezarri behar dira, interes komuna lortze aldera.

Aurreko lerrokadan xedatutakoaren eraginetarako, bi erakundeek berariazko akordioa elkarrekin egitea erabaki dute.

Hori horrela, Kaskailu plazako haur parkearen eraberritzea garatzeko eta gauzatzeko helburua duen hornidura kontratazioari dagokionez, Goizper S.Coop.ek, Iruraren Udalean ezarri du konfiantza osoa lizitazioa diseinatzeko, pleguak idazteko eta kontratua lizitatzeko. Hau da, Irurako Udalak administratuko du prozedura bere kontura eta Irurako Udalaren kontura, hitzarmen honetan eta kontratazio espedientean eta, bereziki, pleguetan adierazten den baldintzetan.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 57. Artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 legeak, 47 eta hurrengo artikuluetan, Administrazio Publikoek, erakunde publikoek eta lotutako edo mendeko zuzenbide publikoko entitateek eta unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin lankidetzaz hitzarmenak egiteko aukeran oinarrituta sinatuko da Hitzarmen hau.

Aurrez adierazitako guztiarekin bat etorritik, alderdiek egokitzen jo dute baterako lankidetzaz garatzea, eta horretarako honako hitzarmen hau sinatzea adostu dute jarraian azaltzen diren klausulek arautuko dute hitzarmena:

Aipatu hornidura kontratatzeke lizitazio-deialdia Udalak bere aldetik egingo du. Lizitazio hori 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikoak agintzen duen prozedura erabiliaz.

KLAUSULAK

LEHENA. Xedea.

Hitzarmen honek honako xede hau dauka: Kaskailu plazako haur parkearen eraberritzea garatzeko eta gauzatzeko helburua duen zerbitzua kontratatzeke eta eskaintzeke unean, Irurako Udalak eta Goizper S.Coop.ek eta konpromisoak zehaztea eta lotzea.

BIGARRENA. Kontratazio-prozedura eta baldintza administratibo berezien agiria eta baldintza teknikoaren agiria Irurako Udalak bere gain hartuko du.

HIRUGARRENA. Alderdien obligazio eta konpromisoak.

- Irurako Udalak, Kaskailu plazaren eraberritzea (zabuak, balantzina, txirrista, etab.) eta gomazko zoladura.
- Goizper, S.Coopek, 15.000€ko ekarpena egitea Kaskailu plazako eraberritzerako.

LAUGARRENA. Erantzukizuna.

Hitzarmen hau sinatzen dutenen erantzukizuna izango da bere betebeharrak betetzea.

BOSGARRENA. Hitzarmenaren eraginak eta iraupena.

Hitzarmena sinatzen duten bi aldeek bere horretan eusten diete beren ahalmenei eta hartzen dituzten erantzukizunak hitzarmenean jasotako betebeharrak eta konpromiso horietan, ez besterik.

Hitzarmenak eragina izango du hitzarmen hau sinatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita parkearen eraberritzearen zuriak egin bitarte.

SEIGARRENA. Araubide juridikoak.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta bere interpretazio eta garapena ordenamendu juridiko-administratiboaren arabera egingo da.

Hitzarmen honetan jasotzen ez denerako administrazio arloko legeriara joko da; bereziki, hauetara: urriaren 1eko 39/2015 Legea, Prozedura Administrazio Erkideari buruzkoa eta urriaren 1eko 40/2015 Legea, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari buruzkoa.

Hitzarmen hau ez betetzearen ondorioz sortutako auziak ebazteko eskuduntza Administrazio Auzietarako Epaitegi eta Auzitegiarena izango da.

ZAZPIGARRENA. Hitzarmena deuseztatzeko arrazoiak.

Hitzarmen honen bosgarren klausulan aurreikutako indarraldia igarotzeaz gain, urriaren 1eko 40/2015 Legea, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari buruzkoa 51. Artikuluan xedatutakoarengatik.

Aurreko guztian ados daudela frogatzeko, eta legez dagokien eskumenak betetz, alderdiek dokumentu honen bi kopia sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA. 6 boto Eh Bildu eta 3 boto EAJ.

9.- GALDE-ERREGUAK.

Gorka Sagarna EAJko zinegotziak adierazi du, aurreko plenoaren akta eta Ekainak 17 plenoaren aktan eskatutako aldaketaren erantzunik ez dutela jaso. Idazkariak erantzun du, hurrengo batzarraldirako akta denak izango dituela.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:15etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.

